

# Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

214. zenbakia

Data 2006-11-10

25153 orria

---

## 3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK

**Azaroaren 2ko 951/06 FA, ondare-eskualdeketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga erakunde laguntzaileen bidez eskudirutan egiteko orainketa baimentzeari buruzkoa.**

---

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

#### FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEPARTAMENTUA

*Azaroaren 2ko 951/2006 FORU AGINDUA, igorpen funtzioa egiten duten agiriak edo truke letren ordezkotza direnak kargatzen dituen Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga entitate laguntzaileen bidez eskudirutan ordaintzea baimentzen duena entitate laguntzaileek negoziatuak direnean, eta Zerga horren 610 eta 611 ereduak onartzen dituena.*

Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 30. artikuluan jasotzen duenez, Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga itundutako zerga da eta araudi autonomoaren menpe dago, sozietate-eragiketetan, truke-letretan eta ordezkotza balioa edo igorpen-funtzioa duten agiritan izan ezik. Horrelakoetan, arau erkideak beteko dira eta lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitortuak eta ordainketak egiteko ereduak onartu ahal izango dituzte, - gutxienez lurralde erkidegoko ereduetan ageri diren datu berdinak jasoz, eta likidazioaldi bakoitzari dagozkion ordainketa epeak ezarri, betiere Estatuko Administrazioak ezartzen dituenekin alde handirik eduki gabe.

Abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak, Ondare Eskualdeketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 34.3 artikuluan xedatzen duenez, Foru Aldundiak baimena eman dezake eskudirutan ordaintzeko, efektu tinbratuak alde batera utzita, merkataritza trafikoaren ezaugarriengatik edo bere mekanizazio prozesuagatik hala komeni denean. Gainera, Aldundiak bidezko neurriak hartuko ditu agiriak eta berari dagokion sarrera behar bezala identifikatzeko, betiere agiriak eraginkortasun exekutiboa galdu gabe.

Artikulu horren babesean, abenduaren 31ko 730/1991 Foru Aginduaren bidez baimena eman zen kreditu entitateek negoziaturiko ordaindukoak eta ordainagiriak kargatzen dituen Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan ordaintzeko. Agindu horrek hainbat aldaketa izan zituen gero, hain zuzen ere, abuztuaren 24ko 740/1998 Foru Aginduaren bidez sartutakoak. Dena den, azken agindu horretan onartu zen 30-A ereduak bere horretan jarraituko du indarrean, orain arte arautua izan den bezala.

Ordainagiri eta ordaindukoen inguruan izandako eskarmentuan aintzat hartuta, zilegi iritzi da eskudirutan ordaintzeko baimena zergari lotutako txeketara eta beste merkataritza agiri - batzuetara ere zabaltzea, entitate laguntzaile batek negoziatuak direnean.

Ordainketa hori egin ahal izan dadin, beharrezkoa da 610 zerga ereduak aldatzea eta bere ordezkotza lehen aipatutako aldaketak jasoko dituen beste bat onartzea zenbaki berdinarekin. Era berean, 611 eredu berria onartu beharra dago entitate baimenduek Fiskaliterako eta Finantzetarako Departamentuari euskarri magnetikoz aurkeztu behar dioten urteko xehetasuna bere edukia barruan jasotzeko; 730/1991 Foru Aginduaren II. eranskinean zehazten diren ezaugarriak aldatu dira horretarako.

Hori dela eta, hau,

## XEDATU DUT

*1. artikulua. Entitate laguntzaileek negoziatu edo kobratzeko onartutako merkataritza agiriak kargatzen dituen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan ordaintzeko baimena ematea.*

Bat. Baimena ematen da ordainagiriak, ordaindukoak, txekeak eta merkataritzako beste agiri batzuk kargatzen dituen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan ordaintzeko, Egintza Juridiko Dokumentatuen modalitatean, baldin eta ordainketa hori zergabilketan laguntzeko baimenduta dauden entitateen bidez egiten bada abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera, eta, gainera, abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 32. artikuluan jasotakoa aplikatuta, entitate laguntzailea Zergaren ordainketaren erantzule solidarioa bada.

*Bi.* Entitate interesatuek hilabete bat lehenago jakinarazi behar diote Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuari zein egunetan hasiko diren aplikatzen foru agindu honetan ezarritako prozedura, eta egun horrek hiruhileko natural baten lehen eguna izango da beti. Aipatutako entitateek egun horretatik aurrera onartzen dituzten ordainduko, ordainagiri, txeke eta bestelako merkataritza agiriei aplikatuko zaie prozedura.

*Hiru.* Ordainagiri, ordainduko, txeke eta merkataritzako beste agiri batzuen zerga eskudirutan ordaintzeko baimena, apartatu honetan arautua, baliatzen denean, horietan guztietan nahitaezkoa izango da negoziatutako onartu dituen entitate laguntzailearen izena edo, bestela, haren identifikazio gakoa agertzea. Gako hori Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuari jakinaraziko zaio, aurreko bi apartatuan aurreikusitako tramitea betetzen den une berean.

*Lau.* Zerga Administrazioak beharrezko jarduketak egin ahal izango ditu sortutako zerga behar bezala ordaindu dela eta exijitutako baldintzak bete direla egiaztatzeko.

*Bost.* Foru agindu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko eskudirutan ordaintzen den Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak 192.323,87 eurotik gorako truke letren soberakina kargatzen duenean.

*2. artikulua. Entitate laguntzaileek negoziatutako agiriak kargatzen dituen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan ordaintzeko erabiliko den 610 eredua, hileko aitorten-likidazioarena, onartzea.*

Onarturik geratu da 610 eredua, honako izena duena: «Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga. Entitate laguntzaileek negoziatutako agiriak kargatzen dituen zerga eskudirutan ordaintzea. Aitorten-likidazioa.» Hilean aurkezteko den eredu hau I. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan, eta bi ale ditu: Administrazioaren alea eta interesatuaren alea, eta azken hau zergaren ordainketa gutuna izango da.

*3. artikulua. Entitate laguntzaileek negoziatutako agiriak kargatzen dituen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergagatik eskudirutan egindako ordainketen urteko aitorten-laburpena aurkezteko 611 eredua, eta ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarri magnetikoa onartzea.*

Bat. Onarturik geratu da 611 eredua, honako izena duena: «Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga. Entitate laguntzaileek negoziatutako agiriak kargatzen dituen zerga eskudirutan ordaintzea. Urteko aitorten-laburpena». Eredua II. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan, eta bi ale ditu: Administrazioaren alea batetik, eta interesatuaren alea bestetik. Horrez gain, ordenagailuz zuzenean irakurtzeko aurkeztu beharreko euskarriaren diseinu fisiko eta logikoak jasotzen ditu ereduak, III. eranskinean ageri direnak.

*Bi.* Eredu hori ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkeztu beharko da. Editran sistema telematikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango da eredua, abenduaren 5eko 1.210/2002 Foru Aginduak, zenbait zerga eredu Editran sistema telematikoaren bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituenak, ezarritakoaren arabera.

*4. artikulua. 610 eta 611 ereduak aurkeztera behartuak.*

Honako entitate hauek daude eredu hauek aurkeztera behartuta: Batetik, foru agindu hau indarrean sartzen denetik ordainagiri eta ordaindukoak negoziatzeko baimenduta zeuden kreditu entitateak, eta bestetik, behin 1. artikuluko bi apartatuan aipatutako komunikazioa eginda, ordainagiri, ordainduko, txeki eta merkataritzako beste agiri batzuk kargatzen dituen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen modalitatean ordaintzeko baimenera biltzen direnak.

#### *5. artikulua. 610 eta 611 ereduaren xedea eta edukia.*

Bat. Indarrean dagoen Ekonomia Itunak 31. artikuluan xedatzen duenez, zerga hau Gipuzkoako Foru Aldundiari ordainduko zaio igorpen funtzioa egiten duten agiriak, ordaindukoak edo antzeko tituluak Gipuzkoan jaulki edo egiten direnean, eta atzerrian jaulkiz gero, lehenengoz eduki dituenaren ohiko bizilekua edo zerga helbidea lurralde horretan dagoenean.

*Bi.* Zerga ordaintzeari begira, entitate hartzaileak 610 eredua erabiliko du. Era berean, kalkulatu beharko du zein karga aplikatuko den negoziatzeko edo kobratzeko onartu duen ordainagiri, ordaindu, txeki edo bestelako merkataritza agiri bakoitzeko, eta zenbatekoa lagatzaileari zordunduko dio. Orobat, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergaren ordainketagatik egindako zordunketaren xehetasun nahikoa emango dio lagatzaileari.

*Hiru.* Aurreko apartatuan adierazitako eragiketaren -entitate laguntzaileek egindakoen- urteko laburpena aurkezteko, 611 eredu informatiboa beteko da 3. artikuluan aipatutako baliabideetako edozein erabiliz.

#### *6. artikulua. 610 eta 611 ereduak aurkezteko epea eta modua.*

Honako erregelak ezarri dira 610 eta 611 ereduak aurkezteko epe eta moduari dagokienez:

a) 610 ereduaren hileko aitorten-likidazioa, foru agindu honetan I. eranskin gisa jaso dena, hilabete natural bakoitza amaitu ondorengo 25 egun naturalen barruan aurkeztuko da, eta aurreko lehen hilabetean bildutako kopuruak aitortzeko erabiliko da. Zenbatekoa Foru Diruzaintzak propio adierazten dituen kontuetan sartuko da.

610 ereduaren hileko aitorten-likidazioaren bi aleak aurkeztu behar ditu aitortzaileak, administrazioarena eta interesatuarena, behar bezala beteak eta izenpetuak. Jasotzen dituen bulegoak behin zigilatu ondoren, aitortzaileak interesatuaren alea gordeko du beretzat, sartutako zenbatekoen ordainketa gutun bezala erabiltzeko.

b) Urteko aitorten-laburpenaren 611 eredua, foru agindu honetan II. eranskin gisa jaso dena, hurrengo urteko otsailaren 1a baino lehen aurkeztuko da. Bertan jasoko den informazioa aurreko lehen urtean negoziatu edo kobratzeko onartutako ordainagiri, ordainduko, txeki eta merkataritzako beste agiri batzuk kargatzen dituen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergagatik ordaindutako zenbatekoei buruzkoa izango da. Informazio hori ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkeztuko da, III. eranskinean jasota dauden diseinu fisiko eta logikoei jarraituta.

Aitortzaileak agiri hauek aurkeztuko ditu:

1. 611 ereduaren laburpen orriaren bi aleak, administrazioarena eta interesatuarena, behar bezala beteak eta izenpetuak. Jasotzen dituen bulegoak zigilatu eta gero, aitortzaileak interesatuaren alea gordeko du beretzat, aurkeztu izanaren zuri garri bezala erabiltzeko.

2. Euskarri magnetikoak etiketa bat eraman beharko du itsatsita kanpoaldean, eta bertan ondoko datu hauek adieraziko dira hurrenkera honetan nahitaez:

- a) Ekitaldia.
- b) Aurkezpen eredua: 611.
- c) Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).
- d) Aitortzailearen sozietate izena.
- e) Aitortzailearen helbidea, udalerrria eta posta kodea.
- f) Harremanetarako pertsonaren deiturak eta izena.

g) Pertsona horren telefonoa eta luzapena.

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da aurreko zerrendaren arabera bakoitzari dagokion letra aurretik jartzea.

Artxiiboak euskarri magnetiko bat baino gehiago badu, guztiek sekuentzialki enumeratutako etiketa bana eramango dute era honetara: 1/n, 2/n, etab, eta «n» hori euskarri kopurua izango da. Bigarren eta hurrengo bolumenen etiketan aski izango da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak jartzea.

Euskarri magnetiko guztiak behin-behineko izaeraz jasoko dira beren prozesaketa egin eta egiaztatuak izan arte. Foru agindu honetan ezarritako diseinu eta bestelako berezitasunekin bat ez datozenean edo haietan jasotako informaziora iritsi ezin daitekeenean, aitortzaileari hamar laneguneko epea emango zaio aurkeztu duen euskarri magnetikoaren akatsak zuzendu ditzan. Egun horiek igaro eta Zerga Administrazioa ezin baditu datu horietara iritsi funtsezko arazoak oraindik hor daudelako, aitorten informatiboa ez aurkeztutzat joko da ondorio guztietarako, eta zergapekoari horren berri emango zaio.

Segurtasun arrazoiak direla-eta, euskarri magnetikoak espresuki eskatzen denean baino ez dira itzuliko. Horrelakoetan, edukia ezabatu ondoren itzuliko dira, dela horiek, dela antzeko - batzuk.

*7. artikulua. 610 eta 611 ereduak aurkezteko tokia.*

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan aurkeztuko dira bi ereduak, Ogasuneko helbidean (Donostiako Errotaburu pasealekua 2, 20018), bai eta gainerako zerga bulegoetan ere.

*Xedapen Iragakorra.*

Foru agindu hau indarrean sartu baino lehen ordainagiri eta ordaindukoekin lan egiteko baimenduta zeuden entitateek kasu batean baino ez dute egin beharko 1. artikuluko bi apartatuan aipatu den jakinarazpena, alegia, baimen hori txeketara eta merkataritzako beste agiri - batzuetara zabaldu nahi dutenean. Foru agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera, ordainagiri eta ordaindukoetarako ere jarraitu ahal izango dute erabiltzen jasotako baimena, inolako jakinarazpenik egin behar izan gabe.

*Xedapen Indargabetzailea.*

Indarrrik gabe geratzen dira foru agindu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, abenduaren 730/1991 Foru Agindua, kreditu entitateek negoziatutako ordainagiri eta ordaindukoak kargatzen dituen Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan ordaintzea baimentzen duena.

*Amaierako Xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2006ko azaroaren 2a.—Juan José Mujika Aginagalde, Departamentuko foru diputatua.

(7899) (11300)





### III. ERANSKINA

#### 611 EREDUA ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO AURKEZTU BEHARREKO EUSKARRIAREN DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

*Lehena.* Aitorpen informatiboa (611 eredu) aurkezteko erabiliko diren euskarri magnetikoek ondoko ezaugarriak bete beharko dituzte:

— *Zinta magnetikoa:*

Pistak: 9.

Dentsitatea: 1.600 edo 6.250 BPI.

Kodea: EBCDIC, hizki larriz.

Etiketak: Etiketarik gabe.

Markak: Zintaren hasieran eta amaieran.

Erregistroak: 250 posiziokoak.

Blokeo-faktorea: 10.

— *Disketeak:*

3 ½''-koa, alde bikoitzekoa. Dentsitate bikoitza (720 KB). MS-DOS sistema eragilea eta bateragarriak.

3 ½''-koa, alde bikoitzekoa. Dentsitate handia (1.44 MB). MS-DOS sistema eragilea eta bateragarriak.

ASCII kodea hizki larriz, kontrol edo tabulazio karaktererik gabe.

250 posizioko erregistroak.

3 ½''-ko disketeek fitxategi bakarra eramango dute, PMaaaa izendatuko dena. Horrela, aaaa aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak izango dira. Fitxategi bakar horrek erregistro mota ezberdinak jasoko ditu, B) atalean aipatzen den hurrenkeran.

Fitxategiak diskete bat baino gehiago hartzen badu, behar adinako fitxategitan banatuko da. Fitxategi partzial bakoitzak honako deitura izango du: PMaaaa.NNN (NNN=001, 002). Horrela, aaaa aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak izango dira eta NNN, aldiz, fitxategiek elkarren segidan duten zenbakia, 001etik hasita.

Artxibo partzialen erregistroak osoak izango dira beti, hau da, inoiz ezingo da fitxategia banatu eta fitxategi partzialetan osatu gabeko erregistroak utzi.

Aitortzailearen ekipoak ez badu jarritako eskakizun teknikoetara egokitzeko gaitasunik, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko Zerga Informatikako Atalera jo beharko du.

*Bigarrena.* Erregistroen deskribapena. Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota sartuko dira. Horiek lehen posizioetatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

1. motako erregistroa: Aitortzailearen erregistroa. Identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpena.

2. motako erregistroa: Aitortuaren erregistroa.

Aurkezpenaren hurrenkera erregistro motaren arabera izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da eta 2. motarako, berriz, behar adina erregistro. Kontuan izan behar da, dena den, posible dela mota bereko merkataritza agiri guztiei buruzko datuak 2. motako erregistro bakar batean metatzea aitortu berberari dagozkionean eta horien zerga (EJZ) hilabete berean ordaindu denean. Aurreko elementuetako bat (agiri mota, aitortua, ordainketaren hilabetea) aldatzen bada, 2. motako beste erregistro bat erantsi beharko da.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretik lerrokatuko dira eta eskuinaldetik zurienez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik lerrokatuko dira eta ezkerretik zerez beteko dira, zezinurik gabe eta enpaketatu gabe.

Eremuaren deskribapenean bestelakorik esaten ez bada, eremu guztiek izango dute edukia. Edukirik ez badute, eremu numerikoetan zeroak jarriko dira, eta alfabetiko eta alfanumerikoak bete gabe utziko dira.

### **1. motako erregistroa: Aitortzailearen erregistroa**

Posizioak. Izaera. Eremuen deskribapena.

1 Numerikoa. Erregistro mota.

«1» konstantea.

2-4 Numerikoa. Aurkezpen eredia.

«611» konstantea.

5-8 Numerikoa. Ekitaldia.

Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak.

9-17 Alfamerikoa. Aitortzen duen entitatearen IFZ.

Aitortzailearen IFZ jarriko da. Eremu hau eskuinera lerrokatu behar da; kontrol karakterea azken posizioa izango da, eta ezkerreko posizioak zerez beteko dira.

18-57 Alfabetikoa. Aitortzailearen izena.

Entitatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe. Eremu honetan ezingo da inoiz ere jarri merkataritza izenik.

Posizioak. Izaera. Eremuen deskribapena.

58 Alfabetikoa. Euskarri mota. «C», informazioa zinta magnetikoan aurkezten bada. «D», informazioa disketean aurkezten bada.

59-107 Alfamerikoa. Harremanetarako pertsona.

Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da:

59-67. Telefonoa: 9 posizioko eremu numerikoa.

68-107. Deiturak eta izena: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.

108-120 Numerikoa. Zeroak.

121-122 Alfabetikoa. Aitorpen osagarria edo ordezkoko aitorpena.

Salbuespen gisa, aurkezten dena bigarren edo ondorengo aitorpen bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da nahitanahiez:

121. Aitorpen osagarria: «C» jarriko da baldin eta aitorpen honen helburua lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean erabat aipatu gabe utzi ziren datuak sartzea bada.

122. Ordezko aitorpena: «S» bat jarriko da baldin eta aitorpen honen helburua ekitaldi berberari dagokion aurreko aitorpen bat baliogabetu eta bere osoan ordezkatzeta bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik baliogabetu dezake.

123-135 Numerikoa. Zeroak.

136-144 Numerikoa. Aitortuen urteko kopurua, guztira.

Aitortzaile honentzat euskarrian guztira aitortuen zenbat erregistro sartu diren adieraziko da. Aitortu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da (2. motako erregistroen kopurua).

145-153 Numerikoa. Agirien urteko kopurua, guztira.

Entitate aitortzaileak aitortzen den zergaldian negoziatu edo kobratzeko guztira zenbat merkataritza agiri (ordainagiriak, ordaindukoak, txekak) onartu dituen adieraziko da, betiere Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eskudirutan ordaindu bada, eta beraz, aitortpenean bilduta badaude.

Aitortuaren erregistroko «Agiri kopurua» eremuan (83-91 posizioetan) adierazitako kopuruaren batura osoa jarriko da.

154-171 Numerikoa. Agirien urteko zenbatekoa, guztira.

18 posizioeko eremu numerikoa.

«Agirien urteko zenbatekoa, guztira» eremuetan (aitortuaren erregistroetako 92tik 106ra arteko posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura jarri behar da, zeinurik eta koma dezimalik gabe.

Zenbatekoak eurotan adieraziko dira.

Eremu hau hauetan banatzen da:

154-169. Agirien zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, jarri zeroak.

170-171. Agirien zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, jarri zeroak.

172-189 Numerikoa. Ordaindutako zerga, guztira.

18 posizioeko eremu numerikoa.

Posizioak. Izaera. Eremuen deskribapena.

«Ordaindutako zerga» eremuetan (107-121 posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura jarri behar da, zeinurik eta koma dezimalik gabe.

Zenbatekoak eurotan adieraziko dira.

Eremu hau hauetan banatzen da:

172-187. Ordaindutako zergaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, jarri zeroak.

188-189. Ordaindutako zergaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, jarri zeroak.

190-250. Zuriuneak.

Zenbateko guztiak positiboak izango dira.

Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

Edukirik gabeko eremu alfanumeriko eta alfabetikoak zuriunez beteko dira.

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik lerrokatuta beteko dira, eta ezkerraldeetik zeroz beteko dira.

Eremuaren deskribapenean kontrakoa esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik lerrokatuko dira, eta eskuinaldeetik bete gabe utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

## **2. motako erregistroa: Aitortuaren erregistroa**

Posizioak. Izaera. Eremuen deskribapena.

1 Numerikoa. Erregistro mota.

«2» konstantea.

2-4 Numerikoa. Aurkezpen eredia.

«611» konstantea.

5-8 Numerikoa. Ekitaldia.

1. motako erregistroko 5etik 8ra arteko posizioetan adierazitakoa jarriko da.

9-17 Alfnumerikoa. Aitortzen duen entitatearen IFZ.

1. motako erregistroko 9tik 17ra arteko posizioetan adierazitakoa jarriko da.

18-26 Alfnumerikoa. Aitortuaren IFZ.

Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ jarri behar da.

Errentak egozten dituen entitatea izanez gero, (ondasun komunitatea, sozietate zibila, banatu gabeko herentzia, etab.), haren IFZ jarriko da.

Eremu hau eskuinera lerrokatu behar da; kontrol karakterea azken posizioa izango da, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.

Aitortua adingabea bada eta IFZrik ez badu, eremu hau bete gabe utziko da. Haren ordeztzeaz, «Ordezkaritza IFZ» eremua beteko da legezko ordezkariaren IFZ jarritz.

27-35 Alfamerikoa.

Aitortua adingabea bada, legezko ordezkariaren IFZ jarriko da (aita, ama edo tutorea).

Era berean, aitortua Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada eta IFZrik ez badu, eremu honetan aitortua ordezkatzeko duenaren IFZ adieraziko da. Ordezkaritza horrek apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenak, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera emana behar du izan.

Eremu hau eskuinera lerrokatu behar da; kontrol karakterea azken posizioa izango da, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.

Gainerako kasuetan, eredu hau bete gabe utziko da.

36-75 Alfamerikoa. Aitortuaren deiturak eta izena, sozietate izena edo izendapena.

Pertsona fisikoa bada, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, hurrenkera horretan nahitaez.

Aitortua adingabea bada, adingabearen deiturak eta izena jarriko dira eremu honetan.

Errentak egozten dituzten entitateak eta pertsona juridikoak badira, entitatearen izena edo izendapen osoa jarri behar da, anagramarik gabe.

76 Numerikoa. Agiri mota.

Gako hauetako bat jarriko da:

«1»: Ordainagiriak badira:

«2»: Ordaindukoak badira:

Posizioak. Izaera. Eremuen deskribapena.

«3»: Txekak badira:

«4»: Bestelako merkataritza agiriak badira.

77-78 Numerikoa. Ordainketa egin den hilabetea.

Adierazi bi digituz zerga ordaindu den hilabetea (01etik 12ra).

79-80 Numerikoa. Ordainketa egin den tokia:

Konstantea. Gipuzkoa.20.

81-82 Numerikoa. Sortzapenaren probintzia.

Konstantea. Gipuzkoa.20.

83-91 Numerikoa. Agiri kopurua.

Entitate aitortzaileak zenbat agiri kudeatu dituen adierazi behar da. Baldintza hauek bete behar dituzte:

a) «Agiri mota» eremuan (76 posizioan) aipatutako erakoa izatea.

b) «Aitortuaren IFZ» eremuan (18-26 posizioetan) jarritako IFZ duen aitortuarenak izatea.

c) Egintza Juridiko Dokumentatuen zerga «Ordainketa egin den hilabetea» eremuan (77-78 posizioetan) adierazitako hilean ordainduta egotea.

d) Egintza Juridiko Dokumentatuen zerga «Ordainketa egin den tokia» eremuan (79-80 posizioetan) adierazitako tokian ordainduta egotea.

e) Egintza Juridiko Dokumentatuen zergaren sortzapena «Sortzapenaren probintzia» eremuan (81-82 posizioetan) adierazitako tokian gertatzea.

92-106 Numerikoa. Agirien zenbatekoa, guztira.

15 posizioeko eremu numerikoa.

Agiriak espainiarra ez den monetan edo dibisan egin badira, Espainiako Bankuak finkatzen duen eta sortzapenaren unean indarrean dagoen truke-tasa saltzailea aplikatuz ateratzen den balioa hartuko da oinarri ezargarriztat. Atzerriko monetak edo dibisak ez badu Espainiako Bankuak finkatutako truke-tasarik, bere merkaturako balioa hartuko da.

Aurreko eremuan (83-91 posizioetan) adierazitako agirien zenbateko osoa jarriko da.

Zenbatekoak eurotan adieraziko dira.



Eremu hau bitan banatzen da:

92-104. Agirien zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, jarri zeroak.

105-106. Agirien zenbatekoaren zati hamartarra.

Edukirik ez badu, jarri zeroak.

107-121 Numerikoa. Ordaindutako zerga.

15 posizioko eremu numerikoa.

Aurreko eremuan (92-106 posizioetan) adierazitako agiriengatik guztira zenbateko zerga ordaindu den jarriko da.

Zenbatekoak eurotan adieraziko dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

107-119. Ordaindutako zergaren zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, jarri zeroak.

120-121. Ordaindutako zergaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, jarri zeroak.

122-250. Zuriuneak.

Zenbateko guztiak positiboak izango dira.

Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

Edukirik gabeko eremu alfanumeriko eta alfabetikoak zuriunez beteko dira.

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik lerrotatuko dira, eta ezkerraldeak zeroz beteko dira.

Eremuaren deskribapenean kontrakoa esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeak lerrotatuko dira, eta eskuinaldeak bete gabe utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

